

2014-01-19

Hondakinen artetik egia atera nahian

Talde parapolizialen eraso izan zuen duela 34 urte Alonsotegiko Aldana tabernak (Bizkaia), eta lau pertsona hil ziren; orain, biktima eta senideek auzia argitzeko eskatu dute.

Gotzon Hermosilla
Alonsotegi

Bihar beteko dira 34 urte. 1980ko urtarrilaren 20an, lehergailu batek eztanda egin zuen Alonsotegiko Aldana tabernan (Bizkaia). Lau pertsona hil ziren: Mari Paz Ariño eta Pacifico Fika senar-emazteak, Liborio Arana eta Manuel Santacoloma. Beste hamar lagun zauriturik suertatu ziren. Susmo guztien arabera, talde parapolizial bat izan zen sarraskiaren egilea, eta GAE Talde Armatu Espainiarrak izeneko erakundeak hartu zuen bere gain, baina 34 urteren buruan auziak argitu gabe dirau. Ez zen inoiz ikerketaren inguruko informaziorik argitaratu, eta ez zuten inor akusatu, ezta epaitu ere.

Orain, 34 urte geroago, bizirik gelditzen diren biktimek eta senitartekoek erabaki dute nahikoa dela, eta Alonsotegiko elizaren aurrean egindako ekitaldi baten bidez, atentatuaren lekutik oso gertu, iragarri dute idazki bat igorriko diotela Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzako idazkari nagusi Jonan Fernandezi. Idazki horretan eskatzen diote «Ertzaintzaren lankidetzarekin» bitarteko guztiak jar ditzala atentatua argitzeko.

Idazkiaren sinatzaileek uste dute egia jakitea «biktima gisa» sentitzen duten mina «sendatzen» lagungarri suerta daitekeela, bai eta «ETArrik gabeko garai berri honen testuinguruan» bakebidean eta adiskidetzean pausoak eman ahal izateko ere.

Malkoak begietan

Idazkiaren euskarazko bertsioa Iker Delgadok irakurri du. Bere aitona-amonak, Garbiñe Zarate eta Jose Angel Gonzalez, Aldana tabernaren jabeak ziren, eta zauritu egin ziren atentatuan. Zarate 2009an hil zen; Gonzalez, berriz, ekitaldian egon da, malkoei eutsi ezinik. Erdarazko testua Iban Aranak irakurri du, atentatuan hildako Liborio Aranaren bilobak.

Idazkia irakurri ostean, eskaera sinatzeari ekin diote biktima eta senideek. Datorren asteartean helaraziko diote eskaera Fernandezi.

Aldana taberna oso ezaguna zen Alonsotegiko giro abertzalean, eta abertzaleak ziren hango bezero gehienak, EAJkoak batez ere. Atentatua izan eta hurrengo urteetan, mehatxuak jasotzen jarraitu zuen Garbiñe Zarate tabernaren jabeak. Zaratek beti pentsatu zuen Alonsotegiko ultraeskuindarrak zeudela mehatxu horien atzean.

Garai hartako polizia arduradunen adierazpenak gorabehera, auzia ez zen inoiz argitu, eta ez dago polizia ikerketaren berririk. Iturri judizialeetatik informazio bat agertu zen: horren arabera, Barakaldoko polizia etxeko maila erdiko agintariak jarri zuten lehergailua. Urte batzuk geroago, GALen ekintzak argitzeko ikerketaren ingurumarian, berriro agertu zen Barakaldoko polizia etxera jotzen zuen lorratza. Gero, isiltasuna.

«Mendeku goserik» ez

Jose Ignacio Etxebarria Alonsotegiko EAJren Uri Buru Batzarreko lehendakaria zen garai hartan, eta zaurituta suertatu zen atentatuan. «Gau hartan afaria izan genuen hemengo beste taberna batean, Arieta izenekoan», gogoratu du. «Egun batzuk lehenago Errege Magoen desfilearen antolaketan parte hartu genuenok egin genuen afaria, eta 80 lagun inguru egon ginen». Aldana tabernaren jabe Jose Angel Gonzalez ere han zegoen. Gainerakoek afaltzen amaitzen zuten bitartean, Aldanan azken tragoa hartzea erabaki zuten biek.

Han harrapatu zituen eztañak: «Jende gutxi zegoen tabernan, eta eskerrak, afaltzen ari zirenak gero Aldanara joateko asmotan zebiltzalako». Zarate gogoratzen du Etxebarriak, iluntasuna, durduzadura. Ahal izan zuen moduan atera zen handik. «Emaztea, eztanda entzun ostean, kalera atera zen. Ikusi ninduenean ez ninduen ezagutu». Hamar egun eman zituen erietxean. «Oraindik baditut orbanak eta gorputzean sartutako ziriak», gaineratu du. «Orrazten naizenean, koskorak igartzen ditut buruan. Nola ez dut egun hura gogoratuko, egunero gogoratu behar dut-eta?».

Etxebarriak dioenez, biktimak «ahazten» saiatu dira. Ez dira mendeku gose. «Baina gau hartan injustizia bat gertatu zen, eta injustiziarik justiziarik ez dago behar dio».

Ekinbide honekin «egia jakin» baino ez dutela nahi nabarmendu du. «Erasoaren benetako jomuga gizartea izan zen. Guk ez dugu inolako meriturik, ez dugu inolako omenaldirik behar. Biktimak izan ginen han egotea suertatu zitzaigulako, besterik ez. Baina ez dugu mendekurik nahi, orduan gertatu zena argitzea baino ez dugu nahi».